



KANALAK

Komunikazio-Kanalak:

- **Webgunea**: Enpresaren produktuak, gaitasunak eta balioak nabarmentzen dituen webgune erakargarri eta informatiboa. Harremanetarako informazioa eta "on-line" katalogo bat izango dituena.
- **Sare sozialak**: Industriarentzat garrantzitsuak diren sare sozialen plataformetan aktiboki parte hartzea. Bertan, albisteak partekatu, produktuak eguneratu eta bezeroekin harreman gertuagoa eskaintzeko.
- **Lineako publizitatea**: Publizitate ordaindua erabiltzea enpresa ezagutzarazteko, sare sozialetan, ikuspena handitzeko garrantzitsuak diren web industrialdeetan, telebista eta irratiko iragarkiak...
- **Posta elektronikoa**: Posta elektronikoko bidezko marketin-estrategiak, bezeroei produktu berrien, eskaintza berezien eta enpresaren berriak emateko.
- **Azoka eta erakusketetan parte hartzea**: Produktuak industria-azoketan, erakusketetan eta metalarekin lotutako ekitaldietan aurkeztea, bezero potentzialengana iristeko.

Banaketa-Kanalak:

- **Zuzeneko salmenta**: Zuzeneko salmentak bezero industrialei, fabrikatzaileei eta metalezko aleazioak eta fundizio produktuak behar dituzten enpresei.
- **Sareko salmenta**: Zuzenean bezeroengana edo banatzaileen bidez iristeko merkataritza elektronikoko plataformak edukiko ditugu. Produktu estandarren edo pertsonalizatuen salmenta ere eskaintzen.

Salmenta-Kanalak:

- **Sareko salmentak**: Sareko salmenta-kanal bat ezartzea merkataritza elektronikoko webgune baten bidez. Horrek aukera ematen die bezeroei eskaerak zuzenean egiteko eta informazio xehakatu eskuratzeko.
- **Salmenta pertsonalizatuta**: Bezeroren batek informazio zehatzagoa beharko balu edo gure produktu edo zerbitzuei buruzko zalantzaren bat badu, eskura izango ditu bai telefono bat, bai posta elektronikoa bat, zalantzak erantzuteko; horretaz gain, beti izango du lantegira bertara joateko aukera, aurrez aurre erantzun ahal izateko bere kezka guztiak.